

MELOI SALTZAILEA

toxic



JUNE FERNANDEZ

Ortutik itzuli berritan erabaki nuen Twitterretik alde egitea, oraindik Twitter zenean. Auzolan batera joan nintzen, brokoliak eta azaloreak landatzera, eta *mindfulness* efektua zapuztu zidan algoritmoak, idazle feminista transgorrotatzaile baten txioak jaurtitzearekin tematua.

Soro komunitarioko kide berri, bizipoz itzela ematen zidan unibertso birtualeko ika-miken ordeztelako buruhauste terrenalak edukitzea, hala nola zer egin errekan hilda agertu zitzaigun orkatzarekin.

Geroztik ez dut Twitterren falta sumatu, akaso drogaz aldatu nuelako. Ducados zigarroak baziren Twitter, banilla zaporedun bapeatzailea da Instagram.

Gogora ekartzen dut beti Irantzu Varelaren argazki batek –ohean belauniko, biluzik, *satisfyer*-a begi-bistan– bi sare sozialetan eragindako erreakzioen arteko alde: “Put! Lodia!” Twitterren vs. “Jainkosa! Erregina!” Instagramen. Agur *hooligan* mozkorrak, ongi etorri MDMAren paradisura.

Goxo ekin nion *selfie*kin eta katuen, maitaleen eta alabaren (*emoji* aurpegian) irudiekin trafikatzan, dopamina ziztada bila; idatzizko gogoeta baten koartada medio, idazlea bainaiz.

Lasaitua hartu nuen Elon Muskek Twitter erosi eta X bihurtu zuenean, Titanic-erako txartela erosi eta senak azken aurreko geralekuan jaiste agindu banindu lez. Are gehiago nazi keinua egin zuenean. Zuckerbergekek gorroto diskurtsoak onartuko dituela iragarri zuen jarraian, baina ez al da Instagram gorrotorik gabeko bihotzen paradisu?

Hori bai, bestondo latza dakar dopaminak. Saguaro iragarki faltsu baten amua irentsi eta 30 euro lapurtu zizkidaten behin. Afalostean liburu bat irakurri ordezt, gaua *scroll* egiten joaten zait maiz. Prokastinazioaren kontrako *app* baten iragarkiak depresioa diagnostikatu berri dit.

Bluesky instalatu dut baina nikotina txikle baten zaporea hartu diot.

ARGIAN: “TikTok, X eta Instagrameko algoritmoek eskuin muturreko edukiak nabarmen hedatzen dituztela frogatu dute”. Deigarria egin zait “sare sozial toxiko” esapidea irakurtzea. Noiz bihurtu ziren zehazki toxiko Arabiar Udaberria eta M-15aren tresnak? Ziur Marta G. Francoren *Las redes son nuestras* saiakeran (Consonni argitaletxea) topatu dezakedala erantzuna baina, esan bezala, idazle yonki honek gutxi irakurtzen du azken boladan. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

